

# **ARALAR BHIko BIZIKIDETZA** **PROGRAMA**

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Programa honen funtsa ez da bakarrik bizikidetza oztopatu dezaketen arazoei irtenbidea ematea baizik eta gure ikastetxean bizikidetza positiboa lantzeko eta indartzeko tresna integrala bihurtzea.

Indarrean dagoen **legediari** errepassoa emanda honako hauek aurki ditzakegu:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko Legean haxe jasotzen da: *“Hezkuntza Administrazioak oinarritzako printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ikastearekin”.*

2006ko maiatzaren 3ko LEY ORGÁNICA DE EDUCACIÓN (LOE) delakoak, Ikastetxeko Hezkuntza proiektuari dagokionez, honako hau zehazten du: *“Esandako proiektuak, zeinak ikastetxeko inguru soziala eta kulturala kontuan hartuko duena, ikaslegoaren aniztasuna lantzeko modua, tutoretza plana eta halaber **BIZIKIDETZA PLANA** jasoko ditu eta oinarritzako balore bezala diskriminazio eza eta hezkuntza inklusioa errespetatuko ditu, baita lege honetan zein uztailaren 3ko 8/1985 Hezkuntza Eskubidea Arautzeko Lege organikoan jasotzen diren printzipio eta helburuak”.* Besteak beste ondoko **printzipioak** azaltzen ditu; *“gatazkak aurreikusteko eta berauen konponbide baketsurako hezkuntza, baita pertsona, famili zein giza mailako bizitzaren eremu guztietan biolentzia ezaren hezkuntza ere”*, eta *“eskubide zein aukeren berdintasunaren garapena eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena”*, eta **helburu** bezala, besteak beste, *“tolerantzia eta askatasunean bizikidetzaren printzipio demokratikoen barruan, eta halaber gatazkei aurre hartzean eta konponbide baketsuan oinarriak dituen hezkuntza”*, eta *“bakerako hezkuntza, giza eskubideen begirunea, elkarrekiko bizitza, giza kohesioa, herrien arteko lankidetzaren eta elkartasuna sustatzen dituzten baloreen jabetzea...”*.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzako Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 urriaren 16ko DEKRETUAK honela jasotzen du bere 6. puntuan: *“Ikastetxeetako bizikidetza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezzen, horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen*

*badituzte errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dituzte gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak”.*

Bestaldetik, kontuan hartu behar da zein ohiartzun handia jaso duten berdinen arteko jazarpen kasuak komunikabideetan eta gizartean azken urteetan. Dena den, egin diren ikerketetan argi azaltzen da egoera ez dela komunikabide gehienetan azaltzen den bezain larria, inondik ere. Ikusi ISEI/IVEIk “La convivencia en los centros de secundaria. Un estudio de casos”; Arartekoaren “Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan” txostena edo Madrilgo Arartekoaren *Bulling*-aren gaineko txostena. Ikerketa sakon eta serioak dira eta guztietan berdinen arteko bortizkeria aztertzen da bere alor guztietan eta tokiaren arabera egoera okerragoa bada ere, errealitatea ez da komunikabideak azaltzen duten bezain larria; hala ere, bizikidetza proiektuen beharra ezinbestekotzat jotzen dute eta hauek egiteko aholku ugari aipatzen dituzte.

Bestaldetik, Ikastetxean bidetxo bat egin dugu jadanik alor honetan: 2001/02 ikasturtean Gernika gogoratuz taldeko Mireia Urangarekin “Gatazkak era positiboan bideratzeko” prestakuntza proiektua egin genuen; 2002/03 ikasturtean “Elkarbizitza Hezkuntza” proiektua burutu genuen; 2003/04 ikasturtean “Elkarbizitza ikastetxean” proiektua landu genuen. Arazo ezberdinei aurre egiteko protokolo batzuk garatu genituen eta martxan jarri ere, baina batez ere ulertu genuen arautegi zorrotzek ez dutela bizikidetza bermatzen eta normatibaren aplikazio zorrotzak ez dituela arazoak konpontzen; bide berriak jorratu behar dira halabeharrez.

Gaiarekin lotura zuzen-zuzena ez badu ere 2004/05, 2005/06 eta 2006/07 irakaskuntza kooperatiboa, autorregulazioa eta oinarrizko kompetentzien inguruko proiektuak jorratu genituen. Ondorio nagusia honako hau litzateke: aukeratzen ditugun edukiak eta erabiltzen ditugun metodologiek eragin zuzena dute gela eta ikastetxeko giroan.

Gauzak honela, Bizikidetzaren gaiari era integralean heltzeko garaia iritsi dela pentsatzen dugu.

## 2. HELBURUAK

Helburu nagusia honako hau litzateke:

***Bizikidetzari buruzko kultura berria sortzea, errespetuan, akordioetan eta elkarrizketan oinarritua. Ikastetxean denok gusturago eta hobeto sentitzea eta gatazkak bide baketsuetatik bideratzea.***

Dena den, programa hau martxan jarriz, badira erdietsi nahi ditugun beste helburu batzuk:

1. Ikasleen autoezagutzan, autoestimuan eta autokontrolan sakontzea. Ikasleen inteligentzi intrapertsonala garatzea.
2. Elkarren artean harremantzeko ditugun gaitasunen garapena: Enpatia, asertibitatea, komunikatzeko gaitasunak, entzuten ikastea, errespetoa...(inteligentzia interpersonala)
3. Gatazkeei era baketsu eta positiboan aurre egiten ikastea (gatazkak giza harremanei estuki lotutako prozesuak dira, kontua ez da gatazkarik ez izatea baizik eta gatazkak era egokian kudeatzea)
4. Eskola Komunitateko partaide guztion arteko araudiaren gaineko hausnarketa eta kultura berrirako behar dituen moldaketak denon partehartzearekin eta adostasunez egitea.
5. Berdinen arteko erasoei aurre egiteko protokoloak finkatu aurreko helburuekin koherentzia gordez.
6. Lantzen ditugun eduki eta metodologiaren gaineko hausnarketa partekatua irakaslearen artean. Curriculumak ere koherentzia gorde behar du garatzen ari garen prozesu honekin.
7. Behar diren estruktura, protokolo eta dokumentu sortuko ditugu martxan jartzen ari garen prozesu hau denboran mantenduko dela bermatzeko.

### 3. LANDU BEHARREKO ALDERDIAK

**1. HEZIKETA EMOZIONALA**  
Tutoritzako saioetan

**NORBANAKOEN ALDERDIAK:**  
Autoezagutza (emozioak ezagutzen)  
Autokontrola (emozio ezberdinen kontrola: haserrea, amorrua, frustrazioa...)  
Autoestimua (norbere burua gehiago baloratu eta maitatu)

**ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN:**  
Enpatia.  
Asertibitatea.  
Komunikatzeko gaitasunak.  
Entzuten ikastea.  
Elkarrenganako errespetoa.  
Gatazkak era positiboan kudeatzeko entrenamendua.  
...

**2. ARAUTEGIAREN BERRIKUSPENA**

- Arautegi punitiboak arazoak konpontzen dituzte?
- Denon artean eztabaidatu da egungo arautegia?
- Denok onartu eta konpartitzen dugu?
- Badira beste bide batzuk arau hausteei eta gatazkeei aurre egiteko? Disziplina positiboa.
- Eskola Komunitateko partaide guztiok parte hartuko dugu hausnarketa honetan (adituen laguntzarekin) Ikasleen partehartzeak garrantzi handia izango du

**3. BERDINEN ARTEKO BORTIZKERI  
KASUETARAKO PROTOKOLOAK**



Hezkuntza Sailaren gomendio eta materialen azterketa eta gure ikastetxeko egoerari egokitzapena.

**4. BIZIKIDETZA CURRICULUMEAN**



Curriculumen berrikuspena egiten ari garen bidearekin koherentzia izateko.  
Nola egiten diogu aurre disrupzioari gure saioetan?  
Zergatik ematen da disrupzioa?  
Erabiltzen dugun metodologiak eragina du gelako lan giroan?

**5. BEHAR DIREN TALDE ETA ESTRUKTURAK  
SORTU PROGRAMA HONEN JARRAIPENA  
ETA ERAGINKORTASUNA BERMATZEKO**



Bizikidetza proiektuko koordinatzailea.  
Bizikidetza behatokia.  
Bitartekari taldea.  
Ebaluazio sistema.

**4. INTERBENTZIOAREN DISEINOA**

HELBURUA	EKINTZA	ARDURADUNA PARTEHARTZAILEA K	BALIABIDEAK	DENBORALIZAZIOA	EBALUAZIO ADIERAZLEA
<p><b>Bizikidetzaren gaia ezagutzen hasi eta gure iritziak konpartitu.</b></p> <p><b>4. helburua.</b></p>	<p><b>SENSIBILIZAZIOA</b> Bizikidetzari buruz gehiago jakin, beste ikastetxeetako esperientziak ezagutu... Gure arteko iritziak partekatu</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea.</p> <p>Irakasleak, gurasoak, ikasleak, Herriko beste eragile batzuk</p>	<p>Aditu ezberdinekin topaketak.</p> <p>Talde ezberdinen bilerak</p>	<p>2009/2010 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan</p>	<p>Bilera horiek burutu izana.</p> <p>Partehartzaileen asebetetze maila (Otik 10era)</p>
<p><b>Ikasleen adimen emozionala landu.</b></p> <p><b>1. 2. eta 3. helburuak</b></p>	<p>Tutoritza saioetan adimen emozionala eta gatazken kudeaketa eraikitzailea programa landu</p>	<p>Orientatzailea eta bizikidetzarako koordinatzailea.</p> <p>Tutoreak eta irakastaldea</p>	<p>Adimen emozionala eta gatazken kudeaketa eraikitzailea programa (une honetan material ugari dago gai hauen inguruan argitaratua)</p>	<p>2009/2010 ikasturtearen hasieratik lantzen hasi.</p>	<p>Ikasleen adimen emozionala neurtzeko frogak pasako ditugu kurtso hasieran eta amaieran.</p> <p>Estamendu ezberdinen pertzepzioak ere jasoko ditugu.</p>
<p><b>Bizikidetzaren gure definizioa eraiki.</b></p> <p><b>4. helburua</b></p>	<p>Sensibilizazioaren etapa pasa ondoren, iritziak, asmoak eta planifikazioa adostu.</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea.</p> <p>Irakasleak, gurasoak eta ikasleak</p>	<p>Gaiaren inguruan dauden materialak eta posible bada aditu baten laguntza koordinazioan</p>	<p>2009/2010ko bigarren hiruhilekoan</p>	<p>Adostutakoa idatziz jasoa geratzea.</p>

<p><b>Gure egoeraren azterketa.</b></p> <p><b>4. helburua.</b></p>	<p>Aipatutako gai guztien inguruko gure ikastetxearen diagnostia.</p> <p>Ahuluneak eta indarguneak.</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea, orientatzailea eta zuzendaritza</p>	<p>Diagnosia egiteko Hezkuntza sailak proposatzen dituen erremintak</p>	<p>2009/2010ko hirugarren hiruhilekoan</p>	<p>Diagnosia idatziz jasoa geratzea.</p> <p>Interbentzio programarako moldaketen proposamena.</p>
<p><b>Araudiaren berrikuspena</b></p> <p><b>4. helburua.</b></p>	<p>Dugun araudia egokia al da hasi dugun bidea egiteko? Akordioak, bitartekaritza, neurriak, Disziplina positiboa ...</p> <p>Gai horien inguruko hausnarketa</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea eta zuzendaritza.</p> <p>Irakasle guztiak, ikasleri osoa eta gurasoak.</p>	<p>Gaiaren inguruan hainbat adituk eta taldek proposatzen dituzten ereduak (Geuz, Gernika Gogoratuz ...)</p>	<p>10/11 ikasturte hasieran.</p>	<p>Araudi berria izatea 10/11 ikasturte erdirako.</p>
<p><b>Bitartekari taldea sortzea.</b></p> <p><b>7. helburua.</b></p>	<p>Araudi berriaren ildoari jarraituz, bitartekari talde bat sortu ikasleen artean. Interesgarria litzateke guraso eta irakasle talde batek ere formakuntza jasotzea gai honetan.</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea.</p> <p>Ikasle talde bat (aipatu bezala irakasle eta guraso talde batek parte hartzea interesgarria litzateke baita ere)</p>	<p>Kanpoko laguntzarekin bitartekari moduan trebatzeko prestakuntza modulo bat egiteko behar dena (presupuestatu behar)</p>	<p>Araudian bitartekaritzaren gaia landu eta onartu ondoren (10/11 ikasturtearen erdialdera?)</p>	<p>10/11 ikasturte amaierarako bitartekari taldea eratua izatea.</p>



<p><b>Berdinen arteko bortizkeri kasuetarako protokoloa adostea.</b></p> <p><b>5. helburua.</b></p>	<p>Hezkuntza Sailak proposatzen duen protokoloaren azterketa eta gure errealitatera egokitzea.</p>	<p>Bizikidetzako koordinatzailea.</p> <p>Klaustroa eta komunitateko gainontzeko partaideen onespena.</p>	<p>Hezkuntza Sailaren protokoloa eta beste protokolo batzuk</p>	<p>Egoeraren azterketa egin ondoren. Posible bada, 2009/10 ikasturtearen amaieran edo 10/11aren hasieran.</p>	<p>Protokoloa egin eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartzea 10/11ko lehen hiruhilekoan.</p>
<p><b>Curriculumaren berrikuspena koherentzia mantentzeko.</b></p> <p><b>6. helburua.</b></p>	<p>Mintegi bileretan eta Batzorde Pedagogikoan eta beste bileretan curriculumaz aztertu eta egokitu.</p>	<p>Mintegi Buruak eta Bizikidetzako koordinatzailea.</p> <p>Irakasle guztiok.</p>	<p>Elkarrekin.net-en dauden materialak. Beste hainbat material.</p>	<p>09/10 ikasturteko bigarren hiruhilekotik aurrera.</p>	<p>10/11 ikasturte amaierarako curriculumak moldatuak izatea.</p>
<p><b>Bizikidetzaren behatokia sortu.</b></p> <p><b>7. helburua.</b></p>	<p>Estamendu guztietako ordezkariek bilduko duen taldea sortu</p>	<p>Bizikidetzarako koordinatzailea eta zuzendaritza taldeko norbait.</p> <p>Irakasleak, ikasleak eta gurasoen ordezkariek. Herriko eragileek presentzia interesgarria litzateke.</p>	<p>Helburua: prozesuaren jarraipena diseinatu eta burutzea.</p> <p>Berritzegunetako aholkularitza beharko luke.</p>	<p>10/11 ikasturtearen erdialdera</p>	<p>10/11 ikasturtearen amaierarako behatokia sortu izatea.</p>
<p><b>Jarraipen sistema eratu eta zehaztu.</b></p> <p><b>7. helburua.</b></p>	<p>Behatokiak programa honen mantentze eta berrikuspenerako bideak ezarri beharko luke.</p> <p>“Prozedura manuala”</p>	<p>Bizikidetzarako behatokia.</p>	<p>Berritzeguneko aholkularitza.</p>	<p>11/12 ikasturte hasieran</p>	<p>11/12 ikasturtearen lehen hiruhilekoaren amaierarako ekintzak eta protokolo guztiak biltzen dituen “prozedura manuala” egina.</p>

**Epe luzeko interbentzio bizia  
izateko programa integral  
moduan pentsatuta dago.**

## **ARALAR B.H.I. INSTITUTUKO ELKARBIZITZA PLANAREN PROIEKTU OROKORRA (2009-2010)**

### **1.- HEZIKETA EMOZIONALA**

Atal hau tutoretza saioetan lantzen da eta landuko da. Programazioa eta plangintza orientatzaile eta tutoreen artean planifikatu eta adostuko da.

### **2.- ARAUTEGIAREN BERRIKUSPENA**

#### **2.1.- Gure arautegia ez da izango eredu zigortzaile hutsa**

Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 201/2008 dekretuan oinarrituta egindako gure Ikastetxeko Barne Araudiaren 4.2.1 atalean jasotakoa erabiliko da.

“4.2.1 Jokabidea zuzentzeko bide adiskidetsuak (42.art.).

**Neurri zuzentzaile punitiborik erabili gabe bide alternatiboak erabilia zuzentzeko ahalegina egingo du Zuzendariak edota dagokion irakasleak”.**

**Bitartekaritza** erabiliko da bi alderdien arteko gatazka batean hirugarren pertsona neutral bat (bitartekaria) sartuz.

Ikasleek bestearen arrazoiak entzuten ikasten du, tolerantzia eta errespetuan heziz.

Boluntarioa da. Irtenbidea bilatzen parte hartzen dute eta biezat ona den akordioa onartzen dute (biek zerbait uko eginez eta besteari zerbait eskatuz).

Horrela bi alderdiek irabazten dute, haien artean komunikatzeko eta akordio justuetara iristeko aukera dutelako.

Erabili beharreko prozedura atal horretan garatuta dagoena da.

**Bide adiskedetsuetatik arazoaren konponbidea lortuko ez balitz, kaltea eragin duenari OOGnak onartutako eta aurretik aipatutako araudiak dioen neurri zuzentzailea aplikatutako zaio.**

**Ikasleekin harremanak sendotuz.** Gelako ordezkari eta ordezkari ordeekin ikasturtean zehar bilerak egingo dira.

Bilera horietan: Arautegiaren berrikuspena egingo da.

Erreklamazioak (ebaluazioari buruzkoak...) eta ekarpenak egiteko baliagarria izango da.

Kexak daudenean esku-hartze kanal bezala erabiliko da.

Zenbait informazio baliagarri ikasleengana iristeko bide bezala erabiliko da. Adibidez: ikastetxeko gutunontzi eta bizikidetzako helbide elektronikoaren erabileraren garrantzia azpimarratuko da eta ordezkariak informazio honen ezagutza gelakideei ahalbideratuko die.

## **2.2.- Gurasoekiko harremanak.**

Ikastetxeko “ebaluazioaren ingurukoak” atalean dagoena (ikasturte hasieran banatutako koadernoan jasotakoa) kontuan hartuko da. Honela dio:

**“Ebaluazioekin lotuta zera dugu: lehenengo eta hirugarren hiruhilekoetan tutorearen eta ikasle bakoitzaren gurasoen arteko elkarrizketa egin behar da. Honek ez du kentzen beste hainbat egon daitezkeela tutoreak hala gurasoak beharrezkoa ikusiko balute.”**

**Ikastetxeari buruz beraien iritzia emateko aukera izan dezaten, **lau urtetik behin** gurasoei galdeketa pasatuko zaie**

## **3.- IKASTETXEAN BORTIZKERI KASUAK DAUDENERAKO PROTOKOLOA**

Aurreko bileran aurkeztutako eta onartutako protokoloa honako hau da:

Egitasmo honetan azaltzen den bezala. Tutoritza saioetan heziketa emozionala landuko da 2 arlo ezberdinetan:

Alde batetik NORBANAKAKO ALDERDIAK (autoezagutza, autokontrola, autoestimua)

Eta bestetik ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEN (enpatia, entzuten ikastea, elkarrekiko errespetoa...).

Dena den, hala ere, bortizkeri kasurik sortu den edo ez jakiteko, urtero lehen eta bigarren mailako ikasleei urriaren bukaera aldera edo, prestaturik dauden materialak pasatuko zaizkie, egoera zein den jakiteko.

Emaitzak jaso ondoren aztertu eta arazoak daudela ikusiz gero eta egoeraren larritasunaren arabera, bide edo protokolo ezberdinak jarraitu beharko dira.

Gertatu diren arazoak “ arinak” eta nahiko “hedatuak” balira: materiala gorde, trukatu, hautsi..., kasu hauetan eta gela osoan orokortuta dagoen egoera izango balitz, talde osoarekin arauak berrikusi eta errespetuzko jokabideak lantzeko joku, ariketa eta antzekoak egitea proposatzen da. Aldiz, arazoa larriagoa balitz honako jarduera protokoloa jarraitu daiteke.

### **3.1 PROTOKOLOA**

#### **3.1.1.- Informazio-bilketa**

Datu bilketa honetan honako datu hauek azaldu beharko lukete:

- a) Ikastetxearen izena
- b) Ustezko biktima eta erasotzaileen izenak
- c) Tratu txar mota(bazterkerta, eraso fisikoa ,hitzezkoa...)
- d) Tratu txarra izaten den lekua
- e) Gertaeraren kontakizuna

#### **3.1.2.-Kasua aztertu eta urgentziazko esku-hartzea**

- a) Erasotzari babesa eskeintzea ( jolasordu, aldagela t.a.etan zaintza bikoiztu, edo aldian dagokiona).
- b) Erasotzaileri disziplina neurriak ezartzea.

#### **3.1.3.- Familiari informazioa pasa**

Bai biktimarenari eta bai erasotzailearenari.

#### 3.1.4.-Informazioa osatu egiaztatu eta aztertu:

Ikasle hauen inguruan dauden irakasle, familiako, zaintzaile, jangelako arduradun, osakidetzako arduradun (azterketa fisikoaren beharra izan bada...), etabarrekin elkarrizketak egingo dira.

#### 3.1.5.- Datuak jaso ondoren ikastetxeak, tratu txarrik izan den eta zer tratu txar mota den finkatu beharko du

(Horretarako Hezkuntza Sailak bidalitako gida dago).

#### 3.1.6.-Hezkuntza ikuskaritzari jakinaraztea

#### 3.1.7.- Jarduera plana osatzea

Idatziz jaso behar da plana eta bertan finkatu beharko dira:

- a) Koordinatzaile bat izendatu
- b) Biktimarekin egin beharreko jarduerak finkatu
- c) Ustezko erasotzaileekin egin beharreko jarduerak finkatu
- d) Lekukoekin edo talde osoarekin egin beharreko jarduerak finkatu
- e) Familiearekin egin beharreko jarduera finkatu
- f) Irakasle, hezitzaile edo arduradun ezberdinekin egin beharreko jarduerak finkatu

#### 3.1.8.- Jarduera planean proposaturiko neurriak familiei jakinarazi eta ebaluatzea

### **3.2.- IKASLEEN ARTEAN BORTIZKERI KASU BERRIRIK SORTU DEN EDO EZ JAKITEKO ETA HAUEK HORIEN BERRI EMATEKO MODUA IZAN DEZATEN, BI AUKERA HAUEK ERABILTZEA ONARTZEN DA:**

Postontzia eta posta elektronikoa. Biak jarriko dira eta erabileraren arabera erabakiko da aurrerantz zer egin. Zuzendaritza eta Sukaldearen artean dagoen paretean jarriko da.

### **3.3.- IKASLEEK IRAKASLE BATEKIN ARAZOAK DITUZTENEAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA**

- Ikasle talde batek irakasle batekin arazoak balitu, delegatuen bitartez irakasleari jakinaraziko lizkioke, beti ere, era argi eta adeitsuan. Euren artean konpontzen saiatuko lirateke.
- Arazoak ikasle bakar batek izango balitu, bere esku legoke, zuzenean irakaslearengana jotzea edo konfiantzazko bitartekari batekin hitz egitea; beti ere, aurrez aipatutako jarrera adeitsuarekin.
- Ikasle talde horrek, aurreko pausoa eman ondoren arazoa ez dela konpontzen ikusiko balu, delegatuaren bidez, tutoreari jakinaraziko lioke, ahal izanez gero tutoretza orduan. Tutoreak dena idatziz jasoko luke delegatuak sinaturik. Era berean, ikasle taldeak, tutorearen laguntzaz, konponbiderako proposamen bat aurkezten saiatuko lirateke.
- Ondoren, tutorea eta irakaslea bilduko lirateke eta tutoreak idatzia eta konponbiderako proposamena aurkeztuko lizkioke bigarrenari. Jarraian, ikasleak, irakaslea eta tutorea elkartuko lirateke konponbidea bilatzeko.
- Pausu hauek guztiak emanda arazoa moldatuko ez balitz tutoreak eta irakasleak erabakiko lukete, ondorengo gune hauetako batetara jotzea:
  - Mintegia
  - Elkarbizitza Behatokia
  - Bide legal-administratiboa

### **3.4.- IRAKASLEEK IKASLE BATEKIN ARAZOAK DITUZTENEAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA**

- ***Irakasleak ikaslearekin hitz egingo du eta arazoa konpontzen saiatuko da (hitz egin, 5 minutu gelatik atera, konpromezuak, kontratuak...).***

- Arazoa konpondu ez bada jokabide desegokia gurasoei idatziz jakinaraziko zaie (horretarako onartua dagoen prozedura erabiliz).
- BAJ eta BKL motako jokabideak direnean, ikaslea irakasleak idatzitakoarekin ados egongo ez balitz, bere iritzia idatziz emateko eskubidea izango luke. Lehenik bere ezadostasuna Tutoreari pasako dio eta honen bitartez Zuzendaritzaraino iritsiko da. Gaia aztertuko da, konponbidea bilatzen saiatu eta akordiorik ez balego Elkarbizitza Behatokia eta azkenik bide legal administratibotara jotzeko aukera izango da.  
Arazoa irakasle batekin baino gehiagorekin gertatuko balitz, irakasle taldeak gaia aztertzeko aukera izango du.

### **3.5.- IRAKASLEEN ARTEAN ARAZOAK DAUDENEAN.**

Mintegi eta Zuzendaritzaren artean soluzioa aurkitzen ahaleginduko gara; konponbiderik ez balego bide legal-administratibora joko da.

### **4.- BIZIKIDETZA CURRICULUMEAN**

Urtero disrupzio eta pasibitate kasurik badagoen ikusi eta egoera aztertzeko aurrebaluazio eta ebaluazio bilerak erabiliko dira.

### **5.- ESTRUKTURA**

#### **ELKARBIZITZA BEHATOKIA**

Era honetara osatua:

- Orientatzailea
- Guraso bat (permanenteko kideetako bat)
- Zuzendaritzako kide bat
- Irakasle bolondresa
- Ikasle bat
- Beharren arabera eta arazoa ikasle batekin denean, ikaslearen tutorea partaide izango da.

Eginkizunak: Ikasle eta gurasoentzat galdeketak prestatu



Datuak bildu, aztertu eta ondorioak atera  
Arazoak detektatu eta konponbidea bilatzeko pausoak ematen hasi.

## DISZIPLINA BATZORDEA:

Honako kide hauez osatua:

- Irakasle bat: behatokiko kidea ez dena
- Zuzendaria
- Ikasketa burua
- Ikaslea behatokikoa ez dena
- Ikasle bati buruzko neurriak hartu behar direnean, **ikasle berak** gertatutakoaren berri emateko aukera izango du. Dena den azken hau ikaslearen erabakia izango litzateke.
- Guraso bat. Behatokiko kidearekin harremanetan egongo dena.

### **1. ERANSKINA (2009-2010 IKASTURTEA). DISRUPZIOA ETA PASIBITATEA.**

Aurtengo ikasturtean disrupzioa edo pasibitate kasurik badugun aztertzen da. **Disrupzioa dela eta honako analisi hau egin da.**

#### 1. MAILA.

Disrupzioa sortzen da eta talde handian egoteko ohitura faltak dakar. Eskola txikietan edozein momentuan galdetu eta banaka atenditzen ohituta daude. Bati galdetu eta denek erantzuten dute.

Autonomia falta zaie.

#### 2. MAILA

Aurrez aipatutako ohitura hori asko gutxitzen da eta orokorrean mutilak heldutasun falta gehiago dutela sumatzen da.

#### 3. MAILA

Aurten ez dago disrupzio kasurik.

#### 4. MAILA

Aurten egoera berezian daude. Orain arte 2 taldetan egon direnak talde bakar baten baitaude eta horrek nolabaiteko disrupzioa eragin du aurten. Orokorrean lan gutxi egiten dute.

2. ebaluazioko emaitzetan garbi ikusi dugu ikasle batzuk zailak egiten zaizkien arloak “uzten” hasi direla. Arlo horiek gainditu gabe titulua lortzeko “kalkuluak” egin dituzte badakitelako legeak horrela ere graduatua lortzeko aukera ematen diela. Egoera honen berri gurasoei eta ikuskariari eman zaie.

Hurrengo ikasturtean, ikasturte hasieran egiten diren bileretan, egoera larri honen berri gurasoei ohartaraziko zaie. Guraso eta irakasleok saiatu beharko gara egoera hau orokortu ez dadin. Ikasleek erronka zailei aurre egiten ikasi behar dutela pentsatzen dugu.

### **Pasibitatearen azterketa.**

#### 1. MAILA

Badugu ikasle bat erabat ausente, erdi lotan edo “ pasmatua” egoten dena. Gurasoekin hitz egin beharko da zer gertatzen den ikusteko.

Tutoreak hitz egin du eta oraingoz aldaketarik ez dagoenez, orientatzaileak gurasoekin harremanetan jartzea erabaki da.

#### 2. MAILA

Ez dago aipatzekorik.

### 3. MAILA ETA 4. MAILA

Pasibitatea askotan arlo bat edo bira mugatzen da. Badakitelako arlo horiek gainditzen ez badituzte ere titulua lor dezaketela; hau horrela, gairen bat UZTEA erabakitzen dute. Horren aurrean legediak zer dioen begiratu da eta, arlo bakar bat edo bi gainditu gabe geratzen direnean titulua lortzen dutela esan digute lege aholkularitzan (EHAA, 218 ZK., 26067 ORR., 2007-11-13KOA) Pasibitatea ezinak sortzen duena bada, ikasle horri buruzko diagnostikorik badagoen ikusiko da eta ez balu egitea eskatu, eta emaitzak aztertu ondoren plangintza egokituko zaio.

### **2. ERANSKINA (2009-2010 IKASTURTEA). GURASOEI GALDEKETA.**

Oharra: galdeketa izeneko fitxategian jasota daude gurasoei pasatako galdeketa eta erantzunak.

### **3. ERANSKINA (2009-2010 IKASTURTEA). BULLYING-A.**

#### **ELKARBIZITZA BEHATOKIA 2009-2010**

Era honetara osatua:

- Orientatzailea: **Iñaki Begiristain**
- Guraso bat (permanenteko kideetako bat): **Arantxa Colomo/Koro Balerdi**
- Zuzendaritzako kide bat: **Carlota Azurza**
- Irakasle bolondresa: **Ros Yañez**
- Ikasle bat: **Maidor Zabala**
- Beharren arabera eta arazoa ikasle batekin denean,ikaslearen tutorea partaide izango da.

Eginkizunak: Ikasle eta gurasoentzat galdeketak prestatu

Datuak bildu, aztertu eta ondorioak atera

Arazoak detektatu eta konponbidea bilatzeko pausoak ematen hasi.

#### **DISZIPLINA BATZORDEA:**

Honako kide hauez osatua:

- Irakasle bat: behatokiko kidea ez dena: **Andu Martinez de Rituerto**

- Zuzendaria: **Carlota Azurza**
- Ikasketa burua: **Axun Orbegozo**
- Ikaslea behatokikoa ez dena: Iñaki Arandia
- Ikasle bati buruzko neurriak hartu behar direnean, **ikasle berak** gertatutakoaren berri emateko aukera izango du. Dena den azken hau ikaslearen erabakia izango litzateke.

Guraso bat. Behatokiko kidearekin harremanetan egongo dena: **Ana Flores**

#### 4. MAILA

Aurten egoera berezian daude. Orain arte 2 taldetan egon direnak talde bakar baten baitaude eta horrek nolabaiteko disrupzioa eragin du aurten. Orokorrean lan gutxi egiten dute.

2. ebaluazioko emaitzetan garbi ikusi dugu ikasle batzuk zailak egiten zaizkien arloak “uzten” hasi direla. Arlo horiek gainditu gabe titulua lortzeko “kalkuluak” egin dituzte badakitelako legeak horrela ere graduatua lortzeko aukera ematen diela. Egoera honen berri gurasoei eta ikuskariari eman zaie.

Hurrengo ikasturtean, ikasturte hasieran egiten diren bileretan, egoera larri honen berri gurasoei ohartaraziko zaie. Guraso eta irakasleok saiatu beharko gara egoera hau orokortu ez dadin. Ikasleek erronka zailei aurre egiten ikasi behar dutela pentsatzen dugu.